



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko abenduaren 13a

149. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. 18 bis zenbakiko zuzenketa onartzea (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, zerga-igoerari buruz eta autonomia erkidegoei baimendutako aurrekontu-defizitari buruz Gobernu zentralak erabakitako neurriek 2017an tributuen bidezko diru-bilketan eta gehieneko gastuan izanen duten eraginari buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, BSH Electrodomésticos España S. A. enpresaren deslokalizazioari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, El Redín, Miravalles eta Irabia-Izaga ikastetxeekiko hezkuntza-itunei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Euskararen Nazioarteko Egunari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, jakitekoa zer eragin izanen duen 2017an osasungintzarako aurrekontuan izanen den handitzeak itzarote-zerrendei aurre egiteko ekintza plan integralean. Marisa de Simón Caballero andreak egin du (5. or.).
- Galdera, ICF-Faurecia Lear enpresaren lantegiaren produkzio-jarduera mantentze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen jardueri buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (6. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Europako Kontseiluko Toki eta Eskualde Agintaritzen Kongresuan Espainiako ordezkartzako kidea izendatzea (7. or.).
- Mahaiko erabakia, 2016ko abenduaren 5ekoa, zeinaren bidez arautzen baita komunikabideei kredetzialen ematea eta Parlamentuko organoen bilkuren grabaketen baimena (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

18 BIS ZENBAKIKO ZUZENKETA ONARTZEA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2016ko abenduaren 12an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu du, besteak beste:

2016ko azaroaren 30ean, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldearen eledunak zuzenketa bat aurkeztu zuen, beste zuzenketa batzuekin batera eta epearen barnean. Zuzenketa hori Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuaren bosgarren artikuluko Bi idatz-zatia kentzeko zen (9. zuzenketa. Sarrera-erregistroko zk.: 4597).

Egun horretan bertan, Nafarroako Parlamentuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeko Mahaiak erabaki zuen zuzenketa hori ez onartzea, edukirik ez izateagatik. Abenduaren 1ean jakinarazi zitzaion zuzenketa aurkeztu zuen parlamentu-taldeari hori ez zela onartu.

Abenduaren 7an, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 130.2 artikuluan ezarritako epearen (hiru egun baliodun) barnean, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldearen eledunak errekurtsio-idazki bat aurkeztu zuen. Horren bidez, eskatu zuen zuzenketa hori onartzeko, akats batengatik onartu ez izateagatik eta benetan edukia izateagatik.

Batzorde horri laguntzen dion legelariak txosten bat egin du, eta bertan adierazi du errekurtsioa baietsi eta zuzenketa onartu egin behar dela, hori ez onartzean akatsa egon baita. Zuzenketa horri 18 bis zenbakia esleitu behar zaio.

Hori guztia aintzat hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 44.8 eta 130.2 artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Baiestea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztutako errekurtsioa eta izapidetzero onartzea Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuaren bosgarren artikuluko Bi idatz-zatia kentzeko egindako zuzenketa; horri 18 bis zenbakia esleituko zaio.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Erabaki hau jakinaraztea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeko kideei.

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, zerga-igoerari buruz eta autonomia erkidegoei baimendutako aurrekontu-defizitari buruz Gobernu zentralak erabakitako neurriek 2017an tributuen bidezko diru-bilketan eta gehieneko gastuan izanen duten eraginari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, zerga-igoerari buruz eta autonomia erkidegoei baimendutako aurrekontu-defizitari buruz Gobernu zentralak erabakitako neurriek 2017an tributuen bidezko diru-bilketan eta gehieneko gastuan izanen duten eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-
teko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zerga eta Finantza Politikarako Kontseiluak iragan abenduaren 1ean erabaki zuenez, autonomia erkidegoei 2017rako baimendutako aurrekontu-defizita, hasiera batean aurreikusitako % 0,5ekoa izan beharrean, BPGaren % 0,6a izan da.

Halaber, gobernu zentralak abenduaren 2ko ministroen kontseiluan erabaki zuen hainbat zerga nabarmen igotzea (alkoholaren eta tabakoaren gaineko zerga bereziak, sozietateen gaineko zerga, edari azukredunen gaineko zerga berria...).

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Neurri horiek zer eragin izanen dute 2017an tributuen bidezko diru-bilketan eta gehieneko gastuan?

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, BSH Electrodomésticos España S. A. enpresaren deslokalizazioari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, BSH Electrodomésticos España S. A. enpresaren deslokalizazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

BSH Electrodomésticos España, S.A. enpresak orain dela urtebete doi-doi aldatu zuen Nafarroatik Aragoira bere helbide fiskala. Harrezkero, Nafarroari esleitzen zitzaizkion esportazioak gutxitu egin dira –horri buruzko galdera idatzi bat jada aurkeztu genuen, eta bere garrantzia soilik estatistikoa dela erantzun zitzaigun–; halere, ematen du enpresa horrek gero eta babes txikiagoa daukala Nafarroan, halako moduan non, langileek diotenez, okertu egin baitira lan-harremanak eta edukiz nahiz langilez hustu baita bere zerbitzuen zentroa.

Nafarroako Gobernuaren ustez, BSH Electrodomésticos España, S.A. enpresaren deslokalizazioak esportazioen estatistikei soilik eragiten die?

Iruñean, 2016ko abenduaren 7an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, El Redín, Miravalles eta Irabia-Izaga ikastetxeekiko hezkuntza-itunei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, El Redín, Miravalles eta Irabia-Izaga ikastetxeekiko hezkuntza-itunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2015eko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Lau alderdietako kideek hezkuntza-itunei buruz egindako adierazpenak ikusita: Nafarroako Gobernuak mantendu edo/eta handitu egingen al ditu El Redín, Miravalles eta Irabia-Izaga ikastetxeekiko hezkuntza-itunak?

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Euskararen Nazioarteko Egunari buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Euskararen Nazioarteko Egunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako ahozko galdera hau aurkezten du, 2016ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran Ana Ollo Hualde andreak erantzun diezaion.

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da, 1949. Eusko Ikaskuntzak, Gernikak eta Eskualzaleen Biltzarrak agiri bat argitaratu eta egun horri izendapen hori eman ziotenetik.

Aurten, lehendabiziko aldiz, Nafarroako Gobernuak ere erabaki du modu ofizialean ospakizun horrekin bat egitea, eta ondorioz abenduaren 3a Nafarroan ere Euskararen Nazioarteko Eguna izan da. Nafarroako Parlamentuak ere bat egin du ekimenarekin, eta horren inguruko adierazpen instituzional bat onartu du.

Erabaki eta adierazpen horiez gain, Euskararen Eguna ospatzeko zenbait ekitaldi antolatu ditu Nafarroako Gobernuak berak.

Zein da Gobernuak egiten duen balorazioa Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko erabakiaz, horrek izan duen harreraz, eta gauzatu diren ekimen eta ekitaldiez?

Iruñean, 2016ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, jakitekoa zer eragin izanen duen 2017an osasungintzarako aurrekontuan izanen den handitzeak itxarote-zerrendei aurre egiteko ekintza plan integralean.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer eragin izanen duen 2017an osasungintzarako aurrekontuan izanen

den handitzeak itxarote-zerrendei aurre egiteko ekintza plan integralean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak 2016ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan osasungintzarako 2017an egon den aurrekontua ikusita eta osasungintzako i-

txarote-zerrendak murrizteko dauden baliabide berriak ikusita, aurrekontua handitze horrek zer eragin aurreikusten duzue izanen duela 2017an i-txarote-zerrendei aurre egiteko ekintza plan integralean?

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, ICF-Faurecia Lear enpresaren lantegiaren produkzio-jarduera mantentze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen jardueri buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ICF-Faurecia Lear enpresaren lantegiaren produkzio-jarduera mantentze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen jardueri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran.

ICF-Faurecia Lear enpresak Burlatako bere lantegia ixteko aukera zerabilen gogoan 2015aren

hasieran; halatan, enplegu-erregulazioko espediente bat erregistratu zuen formalki, plantillako langile guztien kontratuak hutsaltzeko –guztira, 190–. ICF-Faurecia Lear enpresaren zuzendaritzak eta enpresan legezko ordezkariak zeukaten bi erakunde sindikalek akordio bat lortu zuten 2015eko martxoaren 15ean, eta faktoria horretako langileen gehiengo handi batek akordio hori babestu zuen erreferendum bidez hiru egun geroago.

Akordio hartan jasotzen zen hautabideak bilatuko zirela enpresaren jardueraren luzatzeko eta produkzio-jarduera izateko 2016ko abenduaren 31z harago. Hartara, Nafarroako Gobernuaren eta eragile ekonomiko eta sozialen inplikazioa eta laguntza eskatzen zen.

Nafarroako Gobernuak zer egin du eta zer jarraipen egin du beste eragile ekonomiko eta sozial batzuek –bai eta enpresaren eta langileen legezko ordezkariak– 2015eko martxotik hona egindakoaz, ICF-Faurecia Lear enpresaren Burlatako lantegiaren produkzio-jarduera mantentzeko? Zer balorazio egiten duzue prozesuaz eta prozesuaren emaitzaz?

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamorro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Europako Kontseiluko Toki eta Eskualde Agintaritzen Kongresuan Espainiako ordezkariatzako kidea izendatzea.

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Bartzordeak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen:

“1. Foru parlamentari Virginia Alemán Arrastio andrea izendatzea Europako Kontseiluko Toki eta Eskualde Agintaritzen Kongresuan Espainiako ordezkariatzako kide.

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2016ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mahaiko erabakia, 2016ko abenduaren 5koa, zeinaren bidez arautzen baita komunikabideei kredetzialen ematea eta Parlamentuko organoen bilkuren grabaketan baimena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 115. artikuluan xedatzen denez, Legebiltzarreko Mahaiak arautuko du ordezkari grafiko eta literarioei kredetzialak ematea, Parlamentuan haien izen egokitzen diren tokietara eta joan ahal diren bilkuretarara sar daitezela, eta Legebiltzarreko lehendakariari dagokio Parlamentuko organoen bilkuren grabaketa irudizkoak edo soinuzkoak egiteko baimena ematea.

Erregelamendu bidezko aurreikuspen horiek betearazte aldera, eta kontuan hartuta Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko buruak egindako txostenak –hedabideetako ordezkarien akreditazioak emateko prozedurei buruz eta Legebiltzarreko organoen bilkuren grabaketa irudizkoak edo soinuzkoak egiteari buruz 2016ko azaroaren 16an egindakoa eta parlamentu-lanen publikitateari buruz legebiltzarrek hedabideei dagokienez daukaten araudia dela-eta 2016 azaroaren 23an egindakoa–, honako hau ERABAKI DA:

Lehena. Xedatzea Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuak eginen dituela gizarte-hedabideentzako akreditazioak, ezarritako prozedurekin bat eta Legebiltzarreko Mahaiak horri buruz erabakitako jarraibideekin bat.

Bigarrena. Bilkurek irauten duten bitartean, hedabideetako profesionalak errespetatu egin beharko dituzte bilkuren ordenari eta duintasunari buruzko arauak, eztabaidak eta Legebiltzarreko kideen lana eragotzi gabe eta beren informazio-funtzioa egin dezaten esleitutako espazioak errespetatuz.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak baimenduko du, kasua bada, Legebiltzarreko organoen bilkuren grabaketa irudizkoak edo soinuzkoak egitea, eta horren berri emanen zaie Mahaiko kideei.

Laugarrena. Legebiltzarreko langileek, parlamentu-taldeen laguntzaileek eta foru parlamentarietako Legebiltzarreko lehendakariari baimena eskatu beharko diote bilkuren argazkiak edo irudiak hartzeko, eta horren berri emanen zaie Mahaiko kideei.

Bosgarrena. Osoko Bilkura ikusleen tribunatik jarraitzeko gonbita jaso duten pertsonak ezin izan dute argazkirik edo audio- nahiz bideo-grabazioz egin, salbu eta Legebiltzarreko lehendakariak horretarako baimena berariaz ematen badu. Debeku hori espresuki jasoko da bilkuretara joateko gonbita dutenei aldeztu aurretik ematen zaien informazioan eta webgunean Legebiltzarren Osoko Bilkuretara joateko eskabidean.

Seigarrena. Erabaki honen berri emanen zaie foru parlamentariei, Legebiltzarreko langileei, parlamentu-taldeei eta foru parlamentarien elkarten laguntzaileei, hedabideei eta Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuko nahiz Zerbitzu Orokorretako buruei.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza